

KIROLA: KULTURA ETA EKONOMIA

Iturria: Kirolaren Europako Hiririk Onena gisa hartzeko hautagaia, 2014.

Gizarte-testuinguruaz gain, funtsezkoa da proiektua garatuko den kultura eta ekonomia testuinguruaren alderdirik garrantzitsuenak identifikatzea. Horrela, bere helburuak eta udalerrarenak lotu ahalko dira; baita Getxok ematen dituen aukera paregabeak aprobetxatu ere.

Kasu honetan, bereziki interesgarriak diren hiru alderdi identifikatu dira: Getxoko kirolaren eta osasunaren arloan garatutako kultura, politiketan barne hartutako balioak eta Udaltetik hasitako garapen ekonomikoko estrategiak, Getxok zenbait esparru nagusitan (Fadurako etorkizuneko kirol parkeko proiektuarekin zuzenean edo zeharka lotuta daudenak) duen kokapena hobetzea helburu dutenak.

KIROLAREN KULTURA

Historikoki kirola Getxon elementu bereizlea izan da. Kirolari asko eta esparru horretan tradizio handia duen udalerrria da.

Zenbait politika horretan laguntzen ari dira, hala nola Ariketa Fisikoa, Kirola eta Aisialdi Osasungarria Sustatzeko Getxoko Tokiko Plana 2020, eta 2014an Kirolaren Europako Hiria izateko hautagaiaren arrakasta. Horrez gain, 2015ean Kirolaren Europako Hiririk Onena izendatu zuten.

Hautagaitza hori lortu zuen egunean zeuden balioespenen arabera, biztanleen % 77k jarduera fisikoa egiten du. 2016an biztanleen % 32 Getxo Kirolakeko abonatu zen eta hiru udal kiroldegietako erabiltzailea (Gobela, Andra Mari eta Fadura). Horrez gain, Getxok bi paboi (arraunketako bat eta belako beste bat) ere ditu, 1 piraguak gordetzeko, 8 kirol parke eta kiroldegia dituzten 3 ikastetxe, eta instalazio propioak dituzten zenbait klub pribatu.

Jarduerak eta elkarreak:

Nagusiki kirol federatuetako parte-hartzea nabarmentzen da, izan ere, 60 klub daude, eta horien barruan kategoria desberdinetako 200 talde baino gehiago daude. Bertako elkarte kopurua oso garrantzitsua eta aktiboa da, eta

horretaz baliatuz, udalerrian kirol jarduera sustatzeko lan egiten ari da Getxo Kirolak.

Kirol federatuaren jardueraz gain, Getxo Kirolak denboraldiko eta udako zenbait kirol-ikastaro eskaintzen ditu programen bidez, hala nola Multikirolak, eskola-kirola sustatzeko. Horretarako, elkarte, klub eta kirol-eskola sare zabalaren elkarlanean aritzen da.


Kirolik arrakastatsuenak:

Fadurako instalazioetarako sarbide-datuen arabera, hauek dira gehien egiten diren kirolak: futbola, saskibaloia, errugbia, pilota eta areto-futbola. Horiei uretako kirolak gehitu beharoko litzaieke, udal kiroldegien instalazioetatik kanpo egiten badira ere, partaidetza handia dutenak: arraunketa, bela, surfa eta abar.

Kirol tradizionalak:


Esku-pilotaz gain, herri-kirolak ere aipatu behar dira, Euskadiko tradizioarekin oso lotuta dauden zenbait kirol-diziplina direlako. Ez daude pilota edo beste kirol batzuk bezala hedatuta, eta Faduran ez dira askotan egiten baina kultura mailan garrantzitsuak dienez, Getxoko kirol jardueren artean kontuan hartzea bereziki garrantzitsua da. Eremuan gehien ezagutzen edo egiten direnak hauek dira: harriak jasotzea, enborrak moztea, soka-tira eta abar. Kirol horiek, Euskadiko Herri Kirol Federazioaren eta bertako beste erakunde batzuen laguntza dute.

Zenbait jolasekin batera, hala nola bola-jokoa edo igela-toka, herri-kirolak eremu publikoaren oso lotuta daude, eta etorkizuneko kirol-parkeari beste mota bateko kirol, kultura eta gizarte bizitza emateko aukera handia dute.




← Kirol-jardueraren maiztasuna.

Iturria: Kirolaren Europako Hiririk Onena gisa hartzeko hauta-gaia, 2014.



← Getxoko pertsonek kirola egitea.

Iturria: Kirolaren Europako Hiririk Onena gisa hartzeko hauta-gaia, 2014.



← Getxon gehien egindako kirolak.

Iturria: Getxo Kirolakentzako txostena, 2013.

BALIOEKIN GARATZEA

Getxoko politika askok zenbait balio nagusi dituzte funtsean, jarduerak eta estrategiak denen onerako izan daitezzen zuzentzen dituztenak. Horietan nagusia, gizarte, ekonomia eta ingurumen iraunkortasuna da, beste batzuekin lotuta dagoena, hala nola bidezko merkataritza, bertako merkataritza, gizarteratzea eta partaidetza. Balio horiek guztiak Fadurako proiektuaren balioekin bat datoz: irekia, irisgarritasuna, inklusioa, osasuna, iraunkortasuna eta berrikuntza.

EKONOMIAREN ESPARRU ESTRATEGIKOAK GETXON

Getxoko Udalak, 2013an lehiari buruz egindako diagnostiko baten bidez, zenbait esparru ekonomiko estrategiko definituta ditu, eta jarduerak haiekin egokitzen ditu.

Esparru horiek proiektuaren garapenean gai nagusi gisa sartzeko helburuarekin, Fadurako kirol-parkearekin zerikusia izan lezakeela azalduko dugu orain.

Kirolaren eta Ongizatearen teknologia eta industriak (TIDB)

Esparru hori ezinbestekoa da Getxoko estrategia ekonomikoan, izan ere, eragin biderkatzailerak ditu beste sektore batzuetan, zeharkakotasun handia dutelako. Europako, eskualdeko eta toki mailan sustatzen dute, eta zuzenean lotuta dago Faduran garatzen diren jarduerekin eta proiektu honen ikuspegiarekin, beraz, garapenean kontuan hartu beharreko sektore nagusia izango da.

Kultura industriak eta industria sortzaileak (ICC)

Esparru hau zuzenean lotuta ez badago ere, Fadurak tardea du jarduerak dibertsifikatzeko eta modu partzialean eta osagarrian barne hartze-

ko. Horrez gain, ICCekin lotutako gizarte eta ekonomia egitura bat egoteak substratu egokia ematen dio giro berritzaile eta proaktibo baterako, proposatzen den prozesu transformatzaile eta parte-hartzaileko egokia dena.

Kultura eta wellness turismoa (TCW)

Esparru hau aurreko bien bidegurutzean dago. Proiektu honetan TIDBen osagarria izan liteke, eta Getxoren eta, bereziki, Faduraren, ezauzgarrien balioa nabarmentzeko beste modu bat ekar lezake, hala nola kirola, natura eta kultura konbinatzea, hirigunetik hurbil.

Zeharkako esparruak


Udalak zeharkako zenbait esparru ere aurkitu ditu, aurrekoen osagarri gisa aritzen direnak.

IKTak Faduran zuzenean kirolean, osasunean edo instalazio eta zerbitzuen kudeaketan aplikatu daitezkeenak, baina baita eremuetan, erosotasuna, segurtasuna edo sarbideen kontrola hobetuz, aurrerago azalduko dugun moduan.

Merkataritza eta ostalaritza, integratzeko eta eskaintza hobetzeko aukera argiarekin, zenbait turismo-eredutan zertxobait mugatuta dago, hala nola kirol-ekitaldietan eta profesionaletan.


Zerbitzu profesional aurreratuak, Getxoko pertsonen eta enpresen talentua eta prestakuntza nabarmentzeko eta berrikuntzako eta ekin-tzailtzeko ingurua sortzeko aukera ematen dutenak.

Esparru horietako edozein Faduran integratzeko zenbait erronka dakartza: publikoaren eta pribatuaren lankidetzak-ereduak aurkitzea; sakabanatuta dauden jarduerak eta profil eta interes desberdineko hainbat eragile integratzea; erabilgarri dauden eremuak eta azpiegiturak identifikatzea, kirolarenak ez diren bete erabilera batzuekin nabarmentzeko.



← TIDB sektorearen jarduerak EJSNren deskribapenaren arabera - Iturria: Getxolan.

Kirolarekin zerikusia duten beste jarduera batzuk: Kirol eta jolas-hezkuntza (6), aisialdiko eta kirolerako gaiak alokatzea (2), Bigarren Hezkuntza tekniko eta profesionala (2), kirol-instalazioen kudeaketa (3), gimnasioetako jarduerak (2) eta beste kirol-jarduera batzuk (9).



← GetxoPro-ren aipamen grafikoa, TIDBen sektoreko benetako ekintzaileekin eta izan daitezkeenekin egindako topaketa, 2017

EKONOMIAREKIN ZERIKUSIA DUTEN EKIMENAK

Orain Getxon egindako ekimenetako batzuk zerrendatuko ditugu. Batzuk aktibo daude edo berriak dira, eta gehienak Getxolanek sustatu ditu, Udaleko Ekonomia Sustapenerako sailak. Dauden askoren artean proiekturako garrantzitsuenak direnak aukeratu ditugu.

Aholkularitza: Aholkularitza ekintzaileei enpresa-garapenerako fase guztietan. Merkataritza eta ostalaritzako prestakuntza eta zerbitzu proiektu bat ere badago.

Getxo Elkartegia: Getxolanen egoitza eta Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatutako eta partekatutako bulego eta lan-eremu parkea. Lanlab-ez gain beste 20 inguru enpresa ere ditu.

Getxoko Lanlab: 3D inprimaketaren aplikazioen inguruan sortzeko eta trukatzeko eremua.

Wanted: Kultura, enpresa edo gizarte proiektuetarako eta proiektu sortzaile eta berritzaileetarako ideia lehiaketa, gazteek bultzatutakoa.

Getxo Aktibatu!: Esperientziak, ezagutza eta kultura trukatzeko auzokoen sarea, herritarrentzat, profesionalentzat eta saltokientzat.

Osasunlab: Ekintzailetza campusa ongizatearen eta kirolaren esparruan (Fadura 2015), sormenean, joeretan, ekintzailetzan, lidergoan eta komunikazioan prestatuz.

GetxoPro: ITDB sektoreko benetako ekintzaileekin eta izan daitezkeenekin egindako topaketa (2017).

Ostalaritza-aisialdi-enplegu proiektua Faturan:

Bi ekimen barne hartu zituen, Fadura Ostalaritza eta Txikigunea, baztertzeko arriskuan dau-

den pertsonak prestatzeko eta laneratzeko eta ostalaritza-jarduerak sustatzeko helburuarekin.

Horrez gain, dagoeneko adierazi ditugu esparru estrategikoen inguruko zenbait jardunaldi ere antolatzen dira askotan.

Eragile nagusien sarea deskribatzen den dokumentu honen kapituluak, esparru honetan interesgarriak diren zenbait erakunde eta elkarte aipatzen dira.

FADURAREN AHALMEN EKONOMIKOA ETA BERRITZAILEA

Jarduera ekonomikoak sartzea

Fadurako instalazioak ondo dabiltzan arren, interesgarria da bulego edo saltokietarako eremu itxiak, edo sukaldaritza edo salmenta saltokietarako, azoketarako, erakusketarako edo bestelako ekitaldietarako eremu irekiak lagatzeko edo alokatzeko aukera kontuan hartzea.

Horren aldeko faktore bat jarduera profesionalaren eta kirol jardueraren arteko ordutegien osagarritasuna eta izaera (intelektuala eta fisikoa, estatikoa eta dinamikoa eta abar).

Ekimen berriak dagoen egitura ekonomikoarekin integratzeak erronkak ekartzen badituen ere, lankidetzari eta eskumenari dagokienez, Fadura profil berriei irekitzeko aukeratzat ere har daiteke: turistak, auzokoak, ekintzaileak, ikertzaileak eta abar. Interesgarria da gogortzea Faduran dagoeneko talde handia dagoela, ikasleena hain zuzen, oso bestelakoak eta osagarriak diren jarduerak (ikastea eta kirola gitea) arrakastaz batera egiten dituen

Berrikuntza eta ekintzailetza gunea

Erabilerak handitzearen aukeretako bat Fadura ekintzailetza eta berrikuntza gune bihurtzea da. Hor, kirola eta parke lan-eremu eta labora-

tegi gisa arituko lirateke, instalazioak eta erabiltzaileen oinarri handiaz baliatuz, kirolarekin eta ongizatearekin zerikusia duten produktu eta zerbitzuak zuzentzeko edo probatzeko esparru bikain gisa.

TIDBen esparruan identifikatutako 800 enpresa, klub eta elkarte inguru egoteaz gain, hiru unibertsitate daude oso hurbil: Bizkaiko EHU (Getxoko hirigunetik 10 km baino gutxiagora), Deustuko Unibertsitate eta Mondragon Unibertsitatea Bilbon (biak 15 km baino gutxiagora). Horrez gain, nabarmentzekoa da 16 ikastetxe eta 2 Lanbide Heziketako zentro egotea, jadanik aipatutako erakunde publikoek eta beste eremu edo programez gain. Bestalde, kiroldegiko erabiltzaileak, eragileak eta onuradunak ere kontuan hartu behar dira, Fadurak ekar dezakeen kapitalik handiena direlako.

Horrek, eragile horiek guztiak barne hartzen dituen eremu bat garatzeko aukera paregabea ekartzen du TIDBen, ICCen eta TCWen esparru honen azterketan.

GetxoPron, pertsonak erdian jarri behar zirela, ekitatea eta ongizatea sustatzen dituen hirigintza bat sustatu behar zela, irtenbide analogiko eta digitalak konbinatu behar zirela eta egitura-politiken bidez eragile publiko eta pribatuek lankidetzan aritu behar zutela konturatu ziren ekintzaileak.

Aipatu behar da *Thinking Fadura* ekimenerako proposatzen den partaidetza-prozesua bera aukera ona izan daitekeela eragile eta sektoreen arteko lankidetzan proiektu esperimental eta berritzaileetan probatzeko.

Kirol parke adimenduna edo 4.0

Diagnostikoan zehar indarrez sortu diren kontzeptuetako bat "4.0 industria" da, Euskadiko Espezializazio Adimentsuko Estrategiaren helburuekin bat datorrena (RIS3). Ikuspegi

honek teknologia berriak aplikatzen ditu pertsonak eta makinak lotzeko, eraginkortasun handiagoa lortuz, eta garatzeko bidean dauden teknologietan oinarritzen da, hala nola fabrikazio gehigarria, elkarlaneko robotika, sistema ziberfisikoak, errealitate handitua eta birtuala, cloud computing, big data eta ziberseguritatea.

Industriatik Fadura bezalako ingurune batera eramanda, kontzeptua smart city-ren inguruko izango litzateke, lotuta dauden zenbait teknologiek instalazioen, azpiegituren eta eremu publikoen funtzionamendua hobetzen lagun lezaketelako. Horrez gain, oinarri gisa erabil litezke aurreko puntuan aipatutako berrikuntzako ekosistema baterako.

Gai hau lan-ildo esperimentaleko lerrotzat har liteke *Thinking Faduran*, mota horretako teknologien aplikazioak instalazioak eta eremu publikoa kudeatzeko, gizarte topaketan, sarbide kontrolean edo hesirik gabeko segurtasunean eta kirolean bertan erabiliz.

Ikuspegi horretan ez da hainbeste kontuan hartzen eraginkortasuna, industrian planteatzen den moduan; teknologia gizatiartzen da eta pertsonen zerbitzura jartzen da, garatzeko, gozatzeko eta haien ongizatea bilatzeko, smart citizen gisa aktibatzea eskatuz.



LERRO ESTRATEGIKOAK - KIROLA: KULTURA ETA EKONOMIA

Kirolaren kultura eta ongizatea proiektuaren gai nagusizat hartzea eta horrek sortzen duen iritzi positiboa sustatzea.

Proiektuaren balioak bultzatzea komunikazioaren eta jardueren bidez: irekia, irisgarritasuna, inklusioa, osasuna, iraunkortasuna eta berrikuntza.

Herri-kirolak barne hartzea, gizarte-topaketa, kirola, tradizio eta turismoaren artean duen balioarengatik eta eremu publikoa aktibatzekeo dituen aukerengatik.

Esparru ekonomiko nagusien ekimenak integratzea edo sortzea aztertzea, lankidetzak publiko edo pribatuak bilatuz, eremuak lagaz eta abar.

Berrikuntza gune baten abiatze esperimentalak sustatzea edo "4.0" garapen teknologikoko lerro bat sartzea partaidetza eta diseinu prozesuan bertan.

Garagardotegiaren eraikin berriaren ahalmena berrikustea berrikuntza gune berri hori sortzean.

Unibertsitateak, Lanbide Heziketako zentroak eta hurbil dauden ikerketa-zentroak parte hartzea

Fadura talde berriei irekitzea aktiboki bultzatzea: turistak, auzokoak, ekintzaileak, ikertzaileak eta abar.